



Memoria
2022

KABIA foru organismo autonomoko Gobernu Batzordeak onartua

Donostia, 2023ko maiatzak 25

AURKIBIDEA

1. ZERBITZUARI BURUZKO DATUAK	1
1.1. ZERBITZUAK	1
1.2. ERABILTZAILEAK	2
1.2.1 Eguneko zentroak eta eguneko egonaldiak.....	5
1.2.2 Egoitzak.....	7
1.2.3 UPSak.....	8
1.2.4 Aldi baterako egonaldiak.....	9
2. COVID-19	10
2.1. PANDEMIAREN ERAGINA	10
2.2. ORDIZIAKO COVID ZENTROA ETA BILAKAERA.....	12
3. BATERATZE PROZESUA ETA URTEKO KUDEAKETA PLANA.....	13
4. AURREKONTUAREN KUDEAKETA.....	15
4.1. GASTUAK.....	15
4.2. DIRU SARRERAK.....	16

1. ZERBITZUARI BURUZKO DATUAK

2022 urtean KABIAk 16 egoitza kudeatu ditu, hauetatik 9 kudeaketa zuzenekoak eta 7 kudeaketa integralekoak.

2022. urtean ere, COVID aztarrenak bizi izan ditugu. Egoeran aldaketak eman ziren, guztira 12 protokolo eguneraketa izan baitziren. 2021ko urtearekin alderatuz ezberdina, normaltasunera gerturatuz. 2022. urtean ere, une oro eskumena duten erakundeek ezarritako jarraibideak bete eta haiekin koordinatuz lan egin zen. Lehentasuna erabiltzaileak babestea eta zaintzea izan zen, helburu hori lortzeko alde batetik, langileei babes neurri eta baliabide egokienak eman, eta bestetik normaltasunerako pausuak emanez.

1.1. ZERBITZUAK

2022an KABIAk ondorengo zerbitzuak kudeatu zituen. Aipatu behar da pandemiaren ondorioz eten ziren Irun eta Villabonako eguneko egonaldiei dagozkien zerbitzuak etenda jarraitu dutela eskari faltagatik.

Egoitza	Oinarrizko plazak	UPSI plazak	Egoitzako plazak guztira	Eguneko zentroa plazak	Tutoretzapeko apartamentua plazak
Andoain	95	-	95	-	-
Arrasate	104	-	104		
Azkoitia	54	14	68	20	12
Bergara	81	18	99		
Eibar	95		95		
Elgoibar	48	-	48	-	-
Errenteria	127	15	142	-	-
Hernani	88	32	120	60	
Irun	70	-	70	15	-
Lasarte-Oria	42	15	57	25	-
Oñati	68	15	83	-	-
Ordizia	58	-	58	-	-
Pasaia	40	-	40	15	-
Tolosa	147	-	147	-	-
Villabona	39	-	39	4	-
Zumaia	52	-	52	-	-
Guztira	1208	109	1317	139	12

Osasun larrialdi egoeraren ondorioz hartu beharreko neurrien artean, egoitzetan hainbat plaza bete gabe mantendu ziren protokoloak ezarritako isolamenduak egin ahal izateko nahiz eta UPSIetako isolamendu plazak kendu ziren.

1.2. ERABILTZAILEAK

KABIAK 1796 pertsonari eman die arreta 2022. Urtean. Honez gain, Ordizian Covid gunean 367 pertsona artatu ziren urtarrila eta urria bitartean. Sendian programaren barne ere izan genituen 2 erabiltzaile Hernaniko eguneko zentroan.

Hurrengo taulan zerbitzu bakoitzeko alta mugimenduak ikus daitezke:

Egoitza	UPSI	Eguneko zentroa	Aldi baterako egonaldiak	GUZTIRA
332	47	65	28	472

Kabiako erabiltzaileen gehiengo profila honakoa da: batez beste 87 urte dituen emakumea eta menpekotasun handia duena.

Kabiak artatzen dituen pertsonen artean %69,40 emakumeak dira. Erabiltzaileen batez besteko adinari dagokionez, emakumeak gizonak baino zaharragoak dira; gizonen batez besteko adina 82,69 urtekoa da; emakumeena, aldiz, 87 urtekoa.


	ZERBITZUA	SEXUA	
		EMAKUMEA	GIZONA
ANDOAIN	EGOITZA	87,9	84,8
ARRASATE	EGOITZA	87,8	83,3
	ALDI BATERAKOAK	91,0	81,0
AZKOITIA	EGOITZA	87,1	84,7
	UPSI	89,5	82,0
	EGUNEKO ZENTROA	80,5	81,0
BERGARA	EGOITZA	88,9	83,9
	UPSI	86,5	86,6
EIBAR	EGOITZA	89,3	87,5
ELGOIBAR	EGOITZA	88,1	80,0
ERRENTERIA	EGOITZA	87,2	82,6
	UPSI	86,1	83,9
HERNANI	EGOITZA	85,8	80,2
	UPSI	84,1	79,3
	EGUNEKO ZENTROA	83,0	82,6
	ALDI BATERAKO E.Z.	79,5	
IRUN	EGOITZA	89,1	86,4
LASARTE-ORIA	EGOITZA	86,3	82,8
	UPSI	84,9	82,1
	EGUNEKO ZENTROA	88,0	85,5
OÑATI	EGOITZA	88,0	84,0
	EGUNEKO ZENTROA	84,1	81,8
	UPSI	86,0	86,0
ORDIZIA	EGOITZA	81,1	70,3
	ALDI BATERAKOAK	87,0	83,5
PASAIA	EGOITZA	87,7	83,6
	EGUNEKO EGONALDIK	88,5	90,3
TOLOSA	EGOITZA	89,5	82,7
	ALDI BATERAKOAK	89,2	67,0
VILLABONA	EGOITZA	89,4	90,0
ZUMAIA	EGOITZA	88,0	82,0

Orotara KABIako zerbitzuak jasotzen dituzten erabiltzaileen batez besteko adina azken urteetan antzekoa dela ikus daiteke. Kasu guztietan emakumeak dira zaharragoak.


Batez besteko adina											
2017		2018		2019		2020		2021		2022	
E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G
86	82	87	83	87	83	88	83	87	83	88	83

(E) Emakumeak/ (G) Gizonak

Menpekotasun graduaren arabera, menpekotasun larria eta handia dutenen proportzioa handiagoa dela ikus daiteke. Aurreko urteetako joera mantentzen da, mendekotasun handia duten pertsonen pertzentila igo delarik.



Zerbitzu bakoitzeko erabiltzaileak bereiztuta ere, gailentzen diren erabiltzaileak menpekotasun maila handia dutenak dira. Ondorengo taulan ikus daiteke:



Hurrengo puntuetan, erabiltzailearen profila zerbitzu bakoitzeko zehaztuta azalduko dugu.

1.2.1 Eguneko zentroak eta eguneko egonaldiak


205 pertsonari eman zitzairen arreta.

Oñatiko eguneko zentroari dagokionez, bailarako beharrei erantzuteko 2022ko uztailean egoitzako eguneko zentroan asteburuetako zerbitzua martxan jarri zen 12 plaza eskainiz.


Zentroak	Azkoitia	Hernani	Lasarte-Oria	Oñati	Pasaia (Eguneko egonaldiak)	GUZTIRA
Artatutako pertsonak	39	72	39	38	17	205

Erabiltzaileen profila 84 urteko emakumea da

Adin tartea	Azkoitia	Hernani	Lasarte-Oria	Oñati	Pasaia	GUZTIRA
<65	2	1	0	0	0	3
65-75	3	10	1	9	1	24
76-85	12	28	16	11	5	72
86-95	13	33	21	18	10	95
95>	9	0	1	0	1	11
Batez beste	80,07	82,8	86,8	82,9	89,4	84,39




Erabiltzaileen menpekotasun mailari dagokionean, erabiltzaileen %44ak III. mailako menpekotasuna du, mendekotasun maila handiko profila izan da 2022. urtean eguneko zentrotan izan ditugun erabiltzaileena. Ikus ondorengo grafikan:




1.2.2 Egoitzak

Egoitzetan 1405 pertsonari eman zitzairen arreta. Egoiliarren profila 87,6 urteko emakumea eta menpekotasun handikoa da.




Egoitzako erabiltzaileen menpekotasun mailari dagokionean, egoiliarren % 43ak III. mailako menpekotasuna du, mendekotasun maila handiko profila izan da 2022. urtean egoitzetan egon ziren erabiltzaileena. Ikus ondorengo grafikan:




1.2.3 UPSlak

UPSletan 155 pertsonari eman zitzairen arreta. Erabiltzaileen profila 85,5 urteko emakumea eta menpekotasun larrikoa da.



Erabiltzaileen menpekotasun mailari dagokionean, erabiltzaileen % 49ak II. mailako menpekotasuna du, mendekotasun maila larriko profila izan da 2022. urtean UPSletan izan ditugun erabiltzaileena. Ikus ondorengo grafikan:




1.2.4 Aldi baterako egonaldiak


Pandemiako okerrena igaro ostean, 2021. urtean zerbitzua berriro jarri zen martxan. 2022. Urtean, Arrasate, Tolosa eta Ordizian izan ditugu egonaldi mota hauek. Arrasaten eta Tolosan arreta eredu berrira egokitzeko eraikineko obrak direla eta, irailean egonaldi iraunkorren sarrerak itxi ziren obrak hasterako egokitu beharreko eremuak hutsik izateko. Egoera hau ikusita, aldi baterako egonaldiak eskaini ziren 2022ko irailetik urte amaiera arte egonaldi mota honetan plaza gehiago eskainiz Gipuzkoako herritarrei. Ordizian, ordea, Covid plazen beharren arabera egonaldi mota hau egokitzen joan zen.

Zerbitzu honetan guztira 31 pertsona artatu ziren eta erabiltzailearen profila 89,1 urteko emakumea izan zen.

Zentroak	Arrasate	Ordizia	Tolosa	GUZTIRA
Artatutako pertsonak	10	11	10	31



Erabiltzaileen menpekotasun mailari dagokionean, erabiltzaileen %52ak III mailako menpekotasuna zuen, mendekotasun maila handiko profila izan da 2022. urtean aldi baterako egonaldietan izan ditugun erabiltzaileena. Ikus ondorengo grafikan:



2. COVID-19

Covid 19ko protokoloak egoeraren arabera eguneratzen joan ziren heinean egoitzako kudeaketa prozesuak egokitzen joan behar izan ziren. Arestian adierazi bezala, protokoloak egoeraren araberako 12 eguneratze izan zituen. Malgutasuna areagotzen joan da bilakaeraren arabera, gaur egun, gizarte osoari aplikatzen zaizkion neurriak ez izan arren, hasierako egoerarekin alderatuz zerikusirik ez dutenak dira, bai langileentzako zein erabiltzaileentzako ere.

2.1. PANDEMIAREN ERAGINA

Covid 19aren bilakaerak KABIAN izan duen eraginaren inguruko datu batzuk jasoko dira atal honetan. 2022.urtean bi une nabarmendu daitezke positibo kopuru aldetik, urtarrila eta apirila, nahiz eta urte osoan izan den kasu positiboaren erregistroa.

Erabiltzaileei dagokienez, ikus daiteke gaitza kontrolatuago dagoela. Datuak aztertzerakoan, 2021 urte bukaeran kutsatutako erabiltzaile batzuen sendatzea edo heriotza 2022an urte hasieran eman zelako edo 2022ko urte amaieran kutsatutako erabiltzaile batzuen 2023an hasieran eman delako 2022ko datuetan faktore honek duen eragina kontuan izan behar dugu.

Heriotza tasa %2,6a da, Covid-a ez da izan heriotzaren arrazoi nagusia egoitzetan. Neurriak malgutu dira, eta horren ondorioz, kutsatzeak ere erabiltzaileen bizitzaren parte dira, mugikortasun eta malgutasunaren isla direlarik, gizartearen bilakaeraren pareko.

Hurrengo taulan erabiltzaileei dagozkien datuak azaltzen dira. Urteko guztizko datuak dira:

	positiboak	heriotzak	sendatuak
ANDOAIN. SAN JUAN BAUTISTA EGOITZA	104,00	2,00	102,00
ARRASATE. ITURBIDE EGOITZA	85,00	3,00	83,00
AZKOITIA. SAN JOSE EGOITZA	62,00	2,00	60,00
AZKOITIA. SAN JOSE E.Z.	7,00	0,00	7,00
BERGARA. MIZPIRUALDE EGOITZA	69,00	2,00	65,00
EIBAR. SAN ANDRES EGOITZA	79,00	0,00	75,00
ELGOIBAR. SAN LAZARO EGOITZA	45,00	4,00	41,00
ERRENTERIA. JESUSEN BIHOTZA EGOITZA	121,00	4,00	119,00
HERNANI. MARIA MAGDALENA EGOITZA	87,00	2,00	85,00
HERNANI. MARIA MAGDALENA E.Z.	26,00	0,00	27,00
IRUN. AMA XANTALEN EGOITZA	52,00	2,00	50,00
LASARTE. ATSOBAKAR EGOITZA	39,00	0,00	42,00
LASARTE. ATSOBAKAR E.Z.	5,00	1,00	4,00
OÑATI. SAN MARTIN EGOITZA	79,00	3,00	84,00
OÑATI. SAN MARTIN E.Z.	21,00	0,00	24,00
ORDIZIA. JOSE EGOITZA	24,00	0,00	24,00
PASAIA. SAN PEDRO EGOITZA	44,00	0,00	48,00
PASAIA. SAN PEDRO EGUNEKO EGONALDIA	6,00	0,00	6,00
TOLOSA. IURREAMENDI EGOITZA	103,00	3,00	100,00
VILLABONA. SANTIAGO EGOITZA	34,00	1,00	33,00
ZUMAIA. SAN JUAN EGOITZA	21,00	0,00	41,00
GUZTIRA	1.113,00	29,00	1.120,00

E.Z.: eguneko zentroa

Iturria: KABIA eta Gipuzkoako Foru Aldundia, Gizarte Politiketako Departamentua, 2022/12/31

Langileen kasuan, urtarrilean izan ziren kutsadura pilaketa gehienak, martxoa eta uztaila izanik ondorengo hilabeteak kutsatu maila gehien erregistratu zirenak.

Ondorengo taulan langileen urte osoko kasu positiboak ikus daitezke egoitzaka bereiztuak:

	positiboak
ANDOAIN. SAN JUAN BAUTISTA EGOITZA	55,00
ARRASATE. ITURBIDE EGOITZA	34,00
AZKOITIA. SAN JOSE EGOITZA	33,00
AZKOITIA. SAN JOSE E.Z.	1,00
BERGARA. MIZPIRUALDE EGOITZA	66,00
EIBAR. SAN ANDRES EGOITZA	36,00
ELGOIBAR. SAN LAZARO EGOITZA	26,00
ERRETERIA. JESUSEN BIHOTZA EGOITZA	44,00
HERNANI. MARIA MAGDALENA EGOITZA	62,00
HERNANI. MARIA MAGDALENA E.Z.	11,00
IRUN. AMA XANTALEN EGOITZA	21,00
LASARTE. ATSOBAKAR EGOITZA	17,00
LASARTE. ATSOBAKAR E.Z.	1,00
OÑATI. SAN MARTIN EGOITZA	23,00
OÑATI. SAN MARTIN E.Z.	2,00
ORDIZIA. JOSE EGOITZA	11,00
PASAIA. SAN PEDRO EGOITZA	0,00
PASAIA. SAN PEDRO EGUNEKO EGONALDIA	0,00
TOLOSA. IURREAMENDI EGOITZA	61,00
VILLABONA. SANTIAGO EGOITZA	11,00
ZUMAIA. SAN JUAN EGOITZA	14,00
GUZTIRA	529,00

Iturria: KABIA eta Gipuzkoako Foru Aldundia, Gizarte Politiketako Departamentua, 2022/12/31

2.2. ORDIZIAKO COVID ZENTROA ETA BILAKAERA

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean Ordiziako San Jose egoitza COVID 19aren isolamendu zentro erabilerara izan zuen urtarrietik urria bitartean. Ezarritako Covid plazak 21 izan ziren.

Epealdi horretan, 367 pertsona artatu ziren Covid zentroan, erabiltzaileen batez besteko adina 84 urte izan zen. Erabiltzaileen egonaldia orohar 10 egunetakoa izan zen, momentuan indarrean zegoen protokoloa betez.

Covid zentroa egoitzako 1go solairuan kokatua egon zen. Aldi berean, egonaldi iraunkorrak zein aldi baterako egonaldiak ere aurrera eramane ziren gainontzeko 2 solairuetan (37 plaza).

3. BATERATZE PROZESUA ETA URTEKO KUDEAKETA PLANA

2021.eko azaroan Hernaniko egoitza KABIAN sartzearen ondorioz, 2022. urtean, lehen aldiz, urtariletik abendura bitartean, hamasei adinekoen egoitzen kudeatu dira. Bateratze prozesuan mugarri garrantzitsu bat izan da hori.

Zerbitzu eskaintzan erreferente izatea

KABIAko misioa betetze aldera, zerbitzu eskaintzan erreferente izateko ildoari dagokionez, Pertsonan oinarritutako arreta ereduarekin urratsak eman dira eta egoitzetan partaidetza guneak egokitzen joan dira. Halaber, jardunaldi bat eta formakuntza saioak egin dira, pertsonan oinarritutako ereduaren markoa eta jateko esperientziarekin zerikusia dutenak. Adinekoen egoitzetako eredu berrira egokitzeari dagokionez, hiru egoitzetako eraikinetan egokitzeak bideratzeko proiektuak landu eta lizitazioak prestatu dira.

Larrialdi sanitarioari dagokionez, urte hasiera gogorra izan arren, aurreko atal batean landu den moduan, urtean zehar egoera lasaitzen joan da. Une oro osasun agintariek ezarritako protokoloak bete dira.

Hizkuntza berdintasunaren eta emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko neurriak ezartzen jarraitu da. KABIAk EHUK antolatutako "Osasuna eta hizkuntza V: eskaintza aktiboa" uda ikastaroan parte hartu zuen "Hizkuntzen kudeaketa kabiako adinekoen egoitzetan eta eguneko zentroetan" aurkezpena eginez.

Zerbitzu enpresekin koordinazioa etengabekoa izan da urte osoan zehar, aldizkako jarraipen bilerak egin direlarik.

Bateratze prozesuarekin jarraitu

Prozeduren bateratze prozesuari jarraipena eman zaio ere bai. 126/2019 Dekretuak ezarritako hainbat protokolo eta prozedura bateratu dira, eta Farmazia Dekretuak ezarritako betekizunen arabera egoitzetako zerbitzuak antolatzen joan dira, Eusko Jaurlaritzak ezarritako egutegiaren arabera, sistemaren integrazioa burutzeko unean prest egoteko.

Kudeaketa zorrotza sustatu arlo ekonomikoan, asistentzian eta langilerian

Langileen kudeaketari dagokionez, 20/2021 Legearen bitartez langile publikoen egonkortze prozesua arautu zen Estatu mailan eta hori betetzeari ekin dio KABIAk 2022an. 26 deialdietan bildutako 110 plazatarako hautaketa oinarriak negoziatu, onartu eta argitaratu ziren legeak ezarritako epeak betez eta horrek urteko jarduera asko baldintzatu du. Egonkortze legeak bultzatuta, uztailaren amaieran eta abuztuaren hasieran hauteskunde sindikalen deialdia egin zen hainbat zentroetan. KABIAN deitzen ziren lehen hauteskunde sindikalak izanik, antolaketa berezi bat bideratzea eskatu zuen udaran oporraldi garaian.

Kontratazio deialdien bateratze prozesuari jarraipena eman zaio. Bereziki aipatu behar da kudeaketa zuzeneko egoitzetan otorduen zerbitzuaren lizitazioa bideratzeko egin den lana. Kontratazio arloan, Aldundiarekin elkarlanean egindako koordinazioa nabarmendu behar da.

2022ko ekitaldian hainbat kreditu aldaketa gauzatu ziren inbertsio gehigarriak egiteko. Horren bitartez egoitzetan zeuden beharrei erantzuteko aukera paregabea izan zen. Baina gastu horiek

guztiak ezin izan ziren 2022ko ekitaldian zehar egikaritu, besteak beste lizitazioak ez zirelako garaiz esleitu edo formalizatu: ohe eta bestelako ekipamenduaren hornidura, Pasaiaiko egoitzako fatxadaren konponketa, eta beste. Hori dela eta, 2023ko aurrekontuan kreditu txertaketa egin da.

Aurrekontuaren jarraipen zorrotza egiten jarraitu da. Erabiltzaileen ekarpenekin lotuta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak KABIAREN kredituen bilketa epe exekutiboan gauzatzeko protokolo bat sinatu zen 2022ko martxoan.

KABIAREN posizioa indartu eta harremanak landu

Aldundiarekin eta foru sektorearekin koordinazio guneak eta harremanak hobetzeko urratsak ematen jarraitu da 2022 urtean zehar, Ekinez lkasiz ekimenak ahalbidetzen dituen guneak erabiliz adibidez. Bestetik, asistentzia arloan eta eraikinetan gauzatu beharreko inbertsioak bideratzeko garaian Gizarte Politiketako Departamentuarekin elkarlana egin da.

4. AURREKONTUAREN KUDEAKETA

4.1. GASTUAK

KABIA foru organismo autonomoan, 2022. urtean zehar egindako gastuen banaketa beheko taulan ikus daiteke.

Kapitulua	Hasierako aurr.	Behin bet. aurr.	Onart. Oblig.	
			€	%
1. Langileria gastuak	17.113.494	15.573.097	15.016.840	96,4
2. Ohiko gastuak	45.284.600	47.719.556	45.159.137	94,6
3. Finantza gastuak	0	21.700	21.700	100
6. Inbertsio errealak	1.100.000	6.070.719	2.434.206	40,1
8. Aktibo finantzarioak	5.000	5.000	500	10
Gastuak Guztira	63.503.094	69.390.072	62.632.383	90,3

Aurrekontuaren likidazioari dagokionez, aurrekontuaren %90,3an likidatu da. Bigarren kapituluan izan da gastuaren proportziorik handiena, bereziki egoitzetako zerbitzu eta hornidura kontratuetako gastu finkoen ondorioz sortutakoa baita.

Seigarren kapituluan egindako gastua aurrekontuaren %40,1 izan da. Hasierako aurrekontuarekiko kreditu gaikuntza handi bat egin zen, egoitzetan hainbat obra eta hornidura egiteko: Arrasate, Tolosa eta Oñatiko egoitzak egokitzeko, Pasaiaiko egoitzako fatxada birgaitzeko, egoitzetan zeuden hainbat behar estaltzeko, eta azkenik, oheen eta osagarrien hornidura egiteko. Baina, lizitazio guztiak ezin izan dira 2022an formalizatu eta hori dela eta aurreikusitako kopuru osoa ez da gauzatu.

Hala ere, zentroetako beharrei aurre egiteko, inbertsioak egiteko aukera egon da hurrengo taulan ikus daitekeen moduan:

Inbertsioak: ibilgetu materiala	Makineria eta Tresneria	Altzariak	Informatikarako ekipamenduak	Eraikuntzak	Guztira
Zerbitzu Zentralak	0	19.383	28.189	0	47.573
Andoain	21.745	64.888	0	59.093	145.726
Arrasate	9.893	0	0	23.962	33.856
Azkoitia	1.047	22.439	0	37.372	60.858
Bergara	11.349	125.508	0	76.262	213.119
Eibar	38.536	388.371	0	183.912	610.818
Elgoibar	14.888	13.849	0	17.802	46.539
Errenteria	27.969	16.696	0	31.182	75.847
Hernani	16.128	170.339	0	191.154	377.621
Irun	16.200	0	0	199.208	215.409
Lasarte	0	13.969	0	2.340	16.310
Oñati	12.061	71.966	0	27.480	111.507
Ordizia	79	89.140	0	6.554	95.772
Pasaia	4.839	12.673	0	15.702	33.214
Tolosa	1.089	74.735	790	66.355	142.969
Villabona	18.911	6.792	0	23.979	49.681
Guztira / Total	194.734	1.090.748	28.979	962.357	2.276.817

4.2. DIRU SARRERAK

KABIAk, 2022. urtean izandako diru sarrerak beheko taulan jasotzen dira:

Kapitulua	Hasierako aurr.	Behin bet. aurr.	Onart. Eskubid. Garbiak	
			€	%
3. Tasak eta bestelakoak	17.928.335	17.928.335	19.177.945	107
4. Transf. arruntak	44.469.759	45.386.018	45.179.032	99,5
7. Kapital-transferentziak	1.100.000	6.070.719	5.929.529	97,7
8. Aktibo finantzarioak	5.000	5.000	500	10
Sarrerak Guztira	63.503.094	69.390.072	70.287.006	101,3

Kopururik handiena transferentzia arrunten bidez jasotakoari dagokio, nahiz eta, erabiltzaileen ekarpenak espero baino handiagoak izan diren.